




Genero berdintasuna eskatu dute eskualdean

ANOETA-IRURA ▶ Gaiari buruzko ipuin kontaketak eta kafe tertulia izan ziren atzo egunean zehar

EGUNA ▶ Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izan zen atzo mundu osoan ▶ 4



Begoña Gomez ipuin kontalaria atzo emandako saio batean. I. GARCIA



JAIONE ASTIBIA

Abel Barriola, gaur Olaizola II.aren aurka

LEITZA ▶ «Sakeaz baliatzen eta ongi errestatzen» saiatuko dela adierazi dio HITZARI; lau t'erdiko finalerdietako ligaxkakoko partida

TOLOSA ▶

Eskualdeko partaideak 'Ilargiaren sekretua'-n

Filma gaur eskainiko dute Leidorren ▶ 2

IBARRA ▶

EBPN proiektuaren komunikazio plana aurkeztu dute

Urte berrirako martxan jarri nahi dute herrian euskara sustatzeko ▶ 6



ZINEMA ▶

Bihotz-bihotzez egindako lana da 'Ilargiaren sekretua'

Sekretua zein den jakiteko filma ikustea ezinbestekoa dela adierazi diote HITZari filman parte hartu duten eskualdeko zenbait partaidek

EDURNE AYUSO

Estreinatuta berria da errealtatea eta fikzioa nahasten dituen euskarazko lehen film luea: *Ilargiaren sekretua*. Hik Hasi euskal heziketarako aldizkariak ekoiztu duen film honetan, eskualdeko hainbat pertsonak hartu du parte. Protagonisten artean da, adibidez, Tolosan bizi den Aiora Zulaika, *Pirritx* pailazoa. Bestalde, Gari Aranzabalek, alor teknikoan egin du lan, behar zen guztian ere lagunduz.

Filman parte-hartze oso berezia dute bestalde Ibarran bizi diren Abartzih Salem Abajar Mohamedek eta honen alaba Tiderrek. *Ilargiaren sekretua*, besteak beste, kulturen arteko kontrastea eta elkarbizitza islatu nahi ditu eta horretarako, ezinbestekoak izan dira, Abartzih Salem bereberearen gomendioak. Aiora Zulaikak adierazi duenez, «asko lagundu digu. Filman zehar moldaketa asko egin ditugu eta behar izan dugunean han izan da. Abartzih asko mareatu du, baina inoiz ez digu aurpegi txarrik jarri».

Ilargiaren sekretua ez da izan poltsikoari begira egin duten lana, Zulaikak azaldu digunez, «ez da buruarekin egindako filma, bihotzarekin egindakoa da, eta hori, filma ikusterakoan nabari da». Herri lanak garrantzia handia izan du, diru laguntzarik izan ez duten arren, herri mailan, lagun artean, eskatutako gutzia jaso dute. Gari Aranzabalek ikastolen sorreran bizi zen giroarekin parekatu du filmea egiteko garaian sortu den giroa eta izpiritua: «Bateren dirurik jasoko ez duela jakin arren, jende mordoak egin du lan. Dirutan ezin da egindako lan guztia ordaindu».

Filmoren mezua

Aiora Zulaikak azaldu digunez, aspaldian zuten etorkinen gaia lantzeko gogoia. Baina, Gari Aranzabalek azpimarratu duenez, «filmarekin ez genuen dramatismoan erori nahi, haurrei ez genien mezu tristea eman nahi». Zulaikak gaineratu duenez, «gaur egun oso aktuala den errealtatea erakutsi



Gari Arantzabal, Tider, Abartzih Salem eta Aiora Zulaika, eskualdeko partaideak filman. EDURNE AYUSO

nahi genuen». Euskal Herrian etorkinak bizi dira, euskaldundu diren etorkinak dira asko. Kulturen artean desberdintasun horiek eta elkarren arteko errespetua islatu nahi izan dute *Ilargiaren sekretuan*.

Pertsonaiak

Alicia Garaialdek zuzendu duen film honetan, hezur-mamizko pertsonaiak eta fikziozkoak nahasten dira. Ilargia, loreak, dekoratuak fikziozkoak dira, baina Aiora Zulaikak esan digunez, «hiru dimentsioko pertsonaia eta dekoratuak ere ia-ia hezur-mamizkoak bilakatu dira». Fikziozko irudiek lan egitea ez omen da aktoreentzako lan zaila izan, buruhausteak gehienbat, «postprodukzioan sortu dira».

Pertsonaia nagusiak Ilargia, Mari Banu, Roke, Bertol eta

haurrak dira. Aranzabalek azaldu digunez, «aktoreek nor-tasun handia eman diote filmari. Zenbait kasutan, esketxak ere euren asmatu dituzte». Filmeko protagonistetako bat Sidi da. Euskaldundu den sahararra da bera. Nahiz eta aktore profesionala ez izan, oso gustura ibili omen da lanean. Abartzih Salemek nabarmendu duenez, «Sidik ez du asko antzeztu behar izan, bera izan baita».

Aiora Zulaikak, Zurriolako Antzerki Eskolako haurren aktore lana azpimarratu nahi izan du: «Umeez malgutasun handia erakutsi digute. Filma euren oporraldian grabatu genuen, udaran, eta ordu asko pasa zuten gurekin lanean. Pajentzia eta gogo handiz lan egin dute. Askotan euren eman digute indarra».

Gidoia Maialen Lujanbiok

egin du eta hori nabaria omen da, «bertsolari sena gidioan agerian» geratzen omen da. Gidoia pailazoan hitz egiteko modura egokitzea ere erronka handia izan omen da, modu honetako lan bat egiten duten lehen aldia baita.

Erronka handia

Zulaikak azaldu digunez, «filma hau egitea erronka handia izan da guretzat. Orain arte egin izan ditugu zenbait grabaketa, abesti bildumen grabaketak eta antzekoak. Gidoi laburreko ikus-entzunezko lanak egin ditugu, baina sekula ez dugu horren gidoi malguko lanik egin». Film hau egitea, oso gogorra izan da, zinemaren mundua uste baino gogorragoa iruditu baitzaie. Lan honekin, «zer ez den egin behar» ondo ikasi dute.

'Patata, patata!'

Pirritx, Porrotx eta Amona Josefina prest dute ikuskizun berria: *Patata, patata!* Atzo estreinatuta zuten lan berria eta abenduaren 10ean egingo dute eskualdeko estreinaldia Alegin. Eskualdeko beste herri batzuetan ere izango da ikuskizuna ikusteko aukera. *Patata, patata!*-ko protagonista, Tider izeneko haurra da. Tider elkartasun mezu bat zabaltzera dator: bi herri gara, bi hizkuntza gara. Mezu honekin, bi herri eta bi kulturen arteko desberdintasunak erakutsi nahi dituzte.

Ilargiaren sekretua bihotzez egindako lana izan da, gutxi begiratu diote txanponari. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarik gabe egin behar izan dute filma. Zulaikak azaldu duenez, «Hezkuntza Sailak filmearen estreinaldian lagundu du, baina... Kultura eta euskal kultura sustatu nahi dutela esaten dute, baina gero, dena hitzetan geratzen da».

Oztopoak oztopo, gustura geratu dira emaitzarekin. Filma, azaroaren 14ean estreinatuta zen Donostiako Kursaal aretoan eta «haurrak, filmaren hasieratik bukaerara isil-isilik» egon omen ziren. Bitxia da, baina haurrak hasi dira filmeko protagonistak kalean ere ezagutzen. Abartzih Salem esate baterako, film honetan une batez baino azaltzen ez den arren, kalean dihoala ezagutzen dute iada.

Laster DVD-an

Ilargiaren sekretua filma DVD-n ikus-entzuteko aukera izango da laster. Durangoko Liburu eta Disko Azokan salgai izango da iada. Baina, filmeko partaideek, zinemari ikustea gomendatzen digute «formato handiaren aldeko apostua egiten dugu guk; filma askoz hobeto ikusten da pantaila handi baten aurrean». Ez ahaztu, gaur arratsaldean Leidorren ikusteko aukera izango dela, 17:15ean eta 19:00etan. Ondo pasatut!

ZUZENKETA ▶

Urriaren 25eko alean argitaratu zen *Ilargiaren Sekretua* filmoren emanaldien ordutegia ez da zuzena. Filma Tolosaldeko Leidor aretoan ikusi ahalago da gaur 17:15ean eta 19:00etan

GAZTERIA ▶

I. Txotxongilo Lehiaketa prest, Gazte Topaguneak antolatuta

Tolosaldeko gazteei dago zuzenduta lehiaketa; material birziklatuarekin egin beharko dituzte txotxongiloak; izen-ematea zabalik da bihartik, Kultur Etxean

LEIRE MONTES

Tolosako I. Txotxongilo Lehiaketa antolatu du Gazte Topaguneak, Udaleko Gazteria departamenduarekin batera. Tolosaldeko gazteei zuzenduta dago lehiaketa, eta 6 urteko adin mugaz gain, jarri den baldintza bakarra material birziklatua erabiltzea da. Parte hartu nahi duenak bihartik aurrera eman ahal izango du izena. Kultur Etxean eta www.tolosakoudala.net webgunean jaso daitezke oinarriak. Hauek dira:

Adina. Lehiaketa honetan parte hartzeko ezinbestekoa da 6 urte baino gehiago izatea.

Txotxongiloak. Txotxongiloak orijinalak eta material birziklatuarekin eginak izan behar dute.

Aurkezpena. Proiektuak kaxa baten barruan aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek. Kaxa horri itsatsirik, kartazal itxi batean, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia joan beharko dute. Kaxak eta kartazalak egilearen ezizen bera izango dute idatzita kanpoaldean.

Gaia. Ez dago mugarik; gaia librea izango da.

Aurkezpen epea. Bihar zabalduko da epea, eta abenduaren 10a arte izango da lanak aurkezteko aukera.

Non aurkeztu. Proiektuak Kultur Etxeko Gazte Informazio bulegoan aurkeztu behar dira. Astelehenetik ostegunera, 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara joan daitezke

hara; ostiraletan, berriz, 09:30etik 13:30era bitartean.

Epaimahaia. Gazte Topaguneako partaideek, Tolosako Ekinbide Etxeko (TEE) ordezkari batek, eta Udaleko Gazteria departamenduko teknikariak osatuko dute epaimahaia.

Sariak. Lau maila izango dira, eta sari bana:

▶ 7 eta 9 urte bitartekoentzat: Gabonetako Haur Parkerako eta Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoan emanaldirako bi lagunentzako sarrerak.

▶ 10-12 urte bitartekoentzat: Gabonetako Haur Parkerako bi lagunentzako sarrerak, eta kiroldegi zein igerilekurako urte osoko bonua.

▶ 13-15 urte bitartekoentzat: Kultur Batzordeak antolatutako ikuskizun eta kontzertuak

doan, eta igerileku zein polikiroldegirako urteko bonua.

▶ 16 urtetik gorakoentzat: Kultur Batzordeak antolatutako ikuskizun eta kontzertuak doan, igerileku zein polikiroldegiko urteko bonua, Aranburu Liburutegiko bazkide txartela, eta kiroldegiko sauna erabiltzeko 10 saioko bonua.

Sari banaketa. Gabonetako Azoka Berezian banatuko dituzte sariak, abenduaren 18an.

Lanen jasotzea. Lan sarituak Kultur Etxean egongo dira, egileek jaso ahal izateko. Abenduaren 23a izango da txotxongiloak jasotzeko azken eguna. Behin epe hori pasatuta, egileak txotxongiloa berreskuratzeari uko egingo diola ulertuko dute; eta Udala bihurtuko da, hortaz, lanaren jabe.

KULTURA ▶

Irazki elkartekoak, «pozik eta esker onez»

L. MONTES

Irazki elkarte kulturantzako kideak «pozik» dira antolatu berri duten magrebiar asteak jaso duen erantzunarekin. Helburuak beteta, «aurrerantzean gogo handiagoz» lan egiten jarraituko dutela diote.

Era berean, «Tolosaldeko herritar, elkarte, erakunde, ikastetxe, komunikabide, taberna, merkatari eta enprese» eskerrak eman dizkiete eskainitako laguntzarenatik: «Eskerrak zuen esfortzu eta parte-hartzea. Gure satisfazioa zuekin konpartitu nahi dugu; zuei esker lortu baitugu, hein handi batean, jardunaldiak arrakastaz burutzea».

INFORMATIKA ▶

Abendurako ikastaro aukera zabalak KZgunean

L. MONTES

Tolosako KZ gunean prest dituzte abendurako ikastarok. Besteak beste, Internet KZgunea izeneko 20 orduko ikastaroa antolatu dute. Zerbait data eta ordutegi daude aukeran: abenduaren 1tik 20ra, 16tik 29ra, eta abenduaren 21etik urtarrilaren 5era, 16:00etatik 18:00etara; abenduaren 9tik 22ra, 18:00etatik 20:00etara; eta abenduaren 9tik 22ra eta abenduaren 27tik urtarrilaren 5era, 09:00etatik 11:00etara.

Nagusiweb 10 orduko ikastaroan ere eman daitezke izena; bi txanda izango dira: abenduaren 9tik 15era, (11:00-13:00), eta 23tik 30era (18:00-20:00).

Mintegi aukera zabalak ere badago: *Kutxa oinarrizkoa* abenduaren 1ean, 11:00etan; 2an, ordu berean, *Lana lortu* izeneko; *Messenger*, 23an eta 24an, 09:00etan, eta 30ean eta 31n, 11:00etan.

IT Txartela ateratzeko aukera ere izango da, abenduaren 13an eta 23an, 16:00etan.

Izen-ematea zabalik da KZ gunean (Pablo Gorosabel, 34. 943 65 37 20).

HEZKUNTZA ▶

Jai giroko eskola orduak

Zaindarien Festa ari dira ospatzen egunotan Hirukiden, ekitaldi askorekin

L. MONTES

Urduritasun aurpegia taula gainera igo behar zutenek, eta ikusmina nagusi jaialdia hasi zain lurrean eserita zeudenek. Hala aurkitu zituen kazetariak Hirukide ikastetxeko ikasle eta irakasleak, festa giro eta oihu artean. Zaindarien Astea ari dira ospatzen egunotan, eta jaialdi berezia zuten atzo arratsaldean. Ikuskizuna hasi eta berehala isildu ziren guztiak, taula gainean pasatuko zena adi-adi jarraitzeko.

Dantza emanaldiak, betiko kantauak eta abesti modernok, trikiritxa doinuak, txirulak, bibolinak, gitarrak, Realaren ereserkia, *funky*, *rap*... Denetik entzuteko eta ikusteko aukera izan zuten Jesuitinatan elkartu-

takoek. Ikasleak izan ziren protagonista jaialdian; sortutako dantzak eta kantak estreinakoz eskaintzeko aukera ere izan zuten, ikusleen txalo artean.

Baina, dudarik gabe, irakasleen emanaldiak eragin zuen oihu eta barre algara gehien. Haien moztorroekin eta estatua berezi baten inguruko gorabeherekin ederki gozatu zuten ikasleek. Dantzan eman zitoten guztiak amaiera jaialdiari. Kanpoan, bitartean, jolasak izan zituzten txikienek: uztaietan, sokatiran... aritu ziren. Arratsalde osoa iraun zuen festa giroak, eta gaur ikastetxeko helduen txanda izango da.

Maitasuna da zoriona eta bakera lelopean, adiskidetasuna, elkarbizitza eta errespetua lantzea izan dute xede Zaindarien Asteko ekitaldiek. ◀



Jaialdi arrakastatsua egin zuten atzo Jesuitinetan; irakasleek —taula gainean— eta ikasleek dantzan eta jai giroan amaitu zuten eguna. L. M.



Txikienek jolasak izan zituzten jolastokian; sokatiran, irakaslea bera baino indartsuago ziruditen batzuek! LEIRE MONTES

ANOETA-IRURA ▶ GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Genero berdintasuna bultzatzeko hainbat ekitaldi burutu ziren

Genero indarkeriaren nazioarteko egunean Iruran eta Anoetan ipuin kontaketa eta kafe tertulia egin ziren

IMANOL GARCIA

Ekitaldi ugari egin ziren atzo Iruran eta Anoetan, genero indarkeriaren nazioarteko eguna zela eta. Begoña Gomez ipuin kontalaria aritu zen goizean genero berdintasunaren inguruko ipuinak kontatzen, bai Irurako Ikastolan, bai Anoetako Ikastolan. Ondoren, arratsaldean, gazte eta helduentzat eskaini zituen ipuinak. Anoetako Ikastolan gaiari buruzko ipuin lehiaketaren irabazleek beren ipuinak kontatu eta sariak jaso zituzten. Amairu Lu-luaga (DBH 1), Irati Garikano (DBH 2), Maialen Aparicio (DBH 3) eta Garazi Munduate (DBH 4) izan ziren irabazleak. Kristina Martija irakasleak es-



Anoetako Ikastolan egindako ipuin lehiaketako lau irabazleak. I. GARCIA

koletan horrelako gaiak jorraztearen garrantzia azpimarratu zuen. «Hala ere, eskolatik kanpo, familietan eta lagunartean jasotzen duten informazioa eta ikusten duten jokabidea ga-

rrantzitsuagoa da, eragin handiago baitu gazteengan».

Arratsaldean, eraso sexistei nola erantzun daitekeen hitz egin zen Iruran egindako kafe tertulian.

BEGOÑA GOMEZ ▶ IPUIN KONTALARIA

«Pentsakor uzten nauten ipuinak gustatzen zaizkit gehien»

Kandelen Argipean izeneko taldeko partaidea da Begoña Gomez ipuin kontalaria. Atzo Iruran eta Anoetan izan zen genero berdintasunaren inguruko ipuinak kontatzen.

Zer moduz joan dira Iruran eta Anoetan egindako ipuin kontaketa saioak?

Adi-adi egon dira bai ikastola

batean bai bestean. Gehienbat Kataluniako Adela Turin idazlearen istorioak kontatu dizkiet. Emakume honek lan handia egin zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan emakumeon ohiko rolak nolabait apurtzeko. Gero istorioak moldatu egiten ditut ipuinak kontatzerakoan.



I. GARCIA

Genero berdintasuna bezalako gaiak jorratzerakoan ipuinek zertan lagundu dezakete?

Ipuinak beti hitz egiten dute hitz egin gabe. Niri gehien gustatzen zaizkidan ipuinak pentsakor uzten zaituztenak dira, zuzenean ezer esaten ez dizutenak. Eta nik uste dut esanahi eta esangura asko izaten dutela, baina norberak hartuko du momentuan behar duena eta nahi duena.

Zure lanean ikusten duzu genero ezberdintasunik?

Egia esan zorte onekoa naizela uste dut, nire buruan ez baitut jasan ezberdinketarik. Eta gure taldean bi gizonezko eta bi emakumezko gara. ◀

Erremontari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
NEREA
1982
LENTZERIA

HAURRENTZAT
‘Pijamak, kamisetak,
etxeko batoiak,
galtzerdiak,
neguko leotardoak...

VILLABONA ▶ MENDI ASTEA

Gaztetxoekin egindako irteeren diaporama

Aizkardikoek azken bost urteetan hurrekin egindako mendi irteerak erakutsiko dituzte



Loatzomendira egindako irteerara joandako haur talde bat. HITZA

I. GARCIA

Aizkardi Mendi Elkarreak antolatutako Mendi Astearen baitan diapositiba emanaldi berezia egingo da gaur. *Tionttorrez tionttor* izenburupean, elkarreak gaztetxoekin azken bost urteetan egindako irteera ezberdinak ikusi ahaliko dira, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Zentroko Satorra aretoan.

Kirola eskoletan programaren baitan egindako irteerak izan dira erakutsiko direnak

gaurko proiektzioan. Villabonako Udalak Aizkardiri eskatu zion gaztetxoentzat mendi irteerak antolatzea eta «gogo handiz» ekin zioten elkarreak Arantxa Sorondok azaldu duenez. «Beste kiroletan azkenean irabazi edo galdu egiten duzu, baina mendira joaterakoan ez da bater lehiakorra». Bestalde, irteera hauek sortzen den giroa azpimarratzen du Sorondok: «Elkar laguntza eta elkarrekin hitz egitea berez sortzen da mendira joatean».

LARRAUL ▶ KULTUR ASTEA

Egitarau oparoa Kultur Astean astebururako

Hurrei eta helduei zuzendutako ekitaldiak izango dira, gaur hasi eta igandera arte

I. GARCIA

Asteburuan egitarau oparoa izango dute Larraulgo Kultur Astean. Gaur bertan, 17:00-etan herriko haurrentzat merienda emango da Katillutxulo elkartean. Ondoren, 18:00-etan haurrentzako bideo emanaldia izango da udaletxeko liburutegian. 21:00etan hasita, bertso afaria egingo da Katillutxulo elkartean.

Bihar, larunbata, mus txapelketa egingo da Katillutxulo elkartean. Lehenengo bikoteak arkumea jasoko du; bigarrenak baserriko oilasko parea eta hirugarren bikoteak txanpan botila parea. 17:00-etan, Aiztondo argazki rallyan eginiko argazki erakusketa

eta sari banaketa egingo da udaletxean. 17:00etatik 19:00-etara herriko artisauen erakusketa ikusgai herriko ostatuan.

Igandean ere izango da zer egin. Goizean, 11:00etan, haurrentzako eskulan lehiaketa egingo da Katillutxulo elkartean. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, beste aukera berri bat herriko artisauen erakusketa ikusteko herriko ostatuan. 16:30ean gazte eta gaztetxoek eskupilota erakustaldia Murgilazpi pilotalekuan. 18:00etan talo eta gaztain jatea Katillutxulo elkartean. Bestalde, aipatu behar da larunbat eta igande arratsaldetan herriko museoa irekita izango dela.

IKAZTEGIETA ▶ UDALA

Kutturru atsedenekua udaberri aldera inauguratuko dute

Autoak uzteko aparkalekua egokituko dute bitartean; zuhaitz gehiago ere landatuko direla azaldu du Udalak



Zuhaitzez inguratutako parajea, mahaia, aulkiak eta erretegiak jarri dituzte. O. ESKITXABEL



Ikaztegiatik Kutturru atsedenkura joateko bidea. O. ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Orain dela bi urte hasi zituzten Kutturruko atsedenkua egiteko lanak; eta inaugurazioa urte amaierarako egitea espero bazen ere. «lanak atzeratu egin dira eta udaberri aldera» izango dela azaldu du Patxi Ulangak, Ikaztegiako alkatea.

Atsedenkura iristeko bidea izan da lanen atzerapena ekarri duen arrazoietako bat. Izan ere, industrialgune berria egiten ari diren lurren ondotik abiatzen da, eta, beraz, bidearen nondik norakoa zehazteak luze jo duela azaldu du Ulangak.

Parkera iristeko bidea amaituta dago; lan hori Gipuzkoako

Foru Aldundiak burutu du. Bidea bi norabidekoa da eta 500 metro inguruko luzera du. Ikaztegiako bide horretatik ezezik, Legorretatik ere irits daiteke Kutturrura, Mujuri baserriatik beheraka doan bidea hartuta. Hori bai, atsedenekuak hartzen dituen lurak Ikaztegiakoak dira.

Egiteke dauden lanak

Kutturru inauguratu bitartean, hainbat lan burutuko direla jakinarazi du Ikaztegiako alkateak. Autoak uzteko aparkalekua egokituko dute atsedenekuaren ondoan; horretaz gain, hainbat zuhaitz ere landatuko dituzte (batez ere pagoak). Orain arte, 4.000 zuhaitz inguru landatu direla zehaztu du Ulangak: «Batez ere zuhaitz autoktonoak landatu dira: gereziak, haritzak...».

Languarreko eta San Joan Iturriko atsedenekuak ondolan izan arren, «herrian bertan antzeko atsedenekua egiteak harrera ona» izan duela adierazi du Patxi Ulangak. Zentzu horretan, «oraindik parkearen inaugurazio ofiziala egin ez bada ere, bidea egin denetik, herriko eta Legorretako jende asko joaten da Kutturru atsedenkura paseatzera edota arratsaldea bertan pasatzera», esan du.

Parkearen ezaugarriak

Atsedenkua bi zatitan banatzen da; Ikaztegiatik abiatzen den bidea jarraituta, horietako batera iristen da. Bestera, berriz, autoz, Legorretatik irits daiteke. Hala ere, zonalde batek bestera, oinez joateko aukera ere badago, ibilalditxo labur bat eginez.

Bi zonaldeak zuhaitzez inguratuta daude; eta bai batean zein bestean, iturriak, aulkiak eta mahaia jarri dituzte. Janaria bertan prestatzeko erretegiak ere badaude.

Aurrera begira, komunak jartzeko asmoa ere badago: «Mantenu beharrik gabekoak» izango direla azaldu du Ulangak.

ALEGIA ▶

1956-1957an jaiotako bazkaria

1956-1957an jaiotako bazkaria egingo dute abenduaren 3an, Eizmendi jatetxean. Bazkarirako izena emateko azken eguna da gaur; Gipuzkoako Kutxako 2101-0073-16-0124706508 zenbakian 30 euro sartu beharko dituzte interesatuek.

ALEGIA ▶

Gaztain jatea Jubilatutako Ekarteko bazkideentzat

Etzi, igandean, gaztain jatea egingo dute Jubilatutako Ekarteko bertako bazkide direnentzat. 19:00etan hasiko da gaztain jatea eta edaria (ardoa, sagardoa, ura...) ere banatuko dute gaztainerkin batera.

IKAZTEGIETA ▶

Eresargi abesbatzaren emanaldia, gaur

Kultur Astearen egitarauaren baitan, Villabonako Eresargi abesbatzaren abestiak entzuteko aukera izango dute ikaztegiarrek. Emanaldia gimnastika gelan izango da 20:00etan.

IKAZTEGIETA ▶

KZgunean izango da tutorea, astelehenean

Azaroaren 29an, astelehena, bisitaldia egingo du KZguneko tutorea. 09:00etatik 13:00etara izango da bertan. Kontaktatzeko udaletxera (943 653329) edota KZgunea (943 650507, Olatz) deitu dezakete interesatuek.

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'DI QUE SI' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

MERTXE SARASOLA HITZAren harpidedun laguntzaile ibartarra.

▶ **MAHALA**ren esneki eta txerriekin irabazle den harpidedun laguntzailea:

LURDES IZAGIRRE IZTUETA (ALEGIA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua:
68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun eb: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte, C. Korreo 20

(Tolosa). 943 67 60 13.

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza) 112

TOSALALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.tolosaldean_publi@tolosaldeko
hitza.info**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakumea behar
da bi haur zaintzeko.

615 727 384.

SALGAI

Taberna. Gazte taberna salgai
Tolosan. 660 178 183.

IBARRA ▶ KULTURA

Amaitzean da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren proiektua

Herenegun izan zen komunikazio planaren zirriborroaren aurkezpena, urte berrirako martxan jartzea espero dute



Asteazkenean Ibarako udaltxean komunikazio planaren zirriborroa aurkezten. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Herenegun izan zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren aurkezpena Ibarako udaltxean. Plana burutzeko hartu diren konpromiso eta gizarte eragileekin bultzatutako elkar-lana gizarteratu nahi izan zituzten prentsaurrekoan. Komunikazio planaren zirriborroa egin zen asteazkenean, hain zuzen ere. Bertan izan ziren Consuelo Romeo Ibarako alkatea, Mikel Agirre euskara zinegotzia eta Patxi Goenaga Hizkuntza Politikarako sailburuordea, besteak beste.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren oinarritzko dokumentua, 1999ko abenduaren 10ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Egun hartatik, Euskal Autonomi Erkidegoko erakundeei EBPN garatzeko eskaera egin eta Udala, Foru Aldundia eta Jaurilaritzaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatu dira batetik. Bestetik, berriz, Ibarako gizarte eragileekin elkarlana bideratu da.

Ibarako EBPN orain arte egindako lanaren emaitza da, baina amaitzeko dago oraindik. Izan ere, asteazkeneko prentsaurrekoaren ostean, Aholku Batzordearekin elkar-tzekotan ziren Udaleko ordezkariak. Era horretan, batzordeari proiektua aurkeztu eta iritziak jasotzearekin batera, orain arte eginiko lana osatu eta urte amaierarako amaiturik egotea espero da. Aholku Batzordean Ane Martin Haur Eskolako irakaslea, Jokin Zugasti, ikastolako euskara koordinatzailea edota Emeterio Sorazu, herriko apaiza daude, besteak beste.

Patxi Goenagak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esandakoaren arabera «EBPN-ren helburu nagusia, herritarren artean euskararen normalizazioa lortzea da, maila sozialean euskaraz bizitzeko eskubidea ematea, alegia».

Euskara lau haizeetara

Une honetan 45 dira Plan Nagusiari onartu eta garapen bide-

an dabilten erakundeak. 35 dira, berriz, Plana prestatzen ari direnak; horietan dago Ibarren kasua, hain zuzen ere.

Ibarako Udalak, Eusko Jaurilaritzaren eskaintzari erantzunez, euskara biziberritzeko funtsezkoak diren hiru helburu estrategiko kontuan hartuz ekingo dio lanari. Euskara balaunaldi belaunaldi transmititzailea, erabilera zabaltzea eta euskara elikatzea, hain zuzen ere. Helburu horiek lortzeko, berriz, Ibarako Udalak hamar konpromiso hartu ditu bere gain Eusko Jaurilaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean.

Plan estrategikoari esker Udalak, erakundearen barnean eta udalerrian eragin nahi du era berean. Udalaren barneari dagokionez, Administrazioako Euskara Plana bultzatu eta Euskara Zerbitzua sendotu nahi da. Udalerrian kasuan, berriz, hiztunen euskara gaitasuna ziurtatu, harreman sare euskaldunak egituratu eta euskarazko produktuak eskaini nahi ditu Udalak EBPNrekin.

EBPN ▶

ZER DA?

Ibarako Udalak lanean diharduen proiektua da, euskara biziberritzea du helburu eta urte amaierarako prest egotea espero da.

NON ERAGINGO DU

Udalean. Udaltxeko teknikari eta langileen artean eta herritarrekiko komunikazioan.

Udalerrian. Hiztun kopurua mantendu edota igotzeko, euskara erabiltzeko harremanak sortzeko eta euskararen erabilera hobetzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

- 1. Geroratzea.** Euskara belaunaldiz belaunaldi transmitituz euskal hiztunak mantentzea eta hiztun berriak sortzea, hala nola, irakaskuntzaren bidez, helduen euskalduntze alfabetizazioaren bitartez edota familian bertan erabiliz.
- 2. Erabiltzea.** Euskara zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko erabilera eremuetara zabaltzea, hala nola, administrazioa, erakundeetara, enpresetara, teknologia berrietara, aisialdira, erlijio saio ezberdinetara...
- 3. Elikatzea.** Euskara etengabe elikatzea, kultur gintza, hedabide, publizitate, literatura eta abarren bitartez landu eta gaur egungo premietara egokitzu.

KONPROMISOAK

- 1.** EBPNren garapen teknikorako solaskidea izendatzea.
- 2.** Orain artean Ibarako udalerrian egin diren ekintzen datu bilketa egitea.
- 3.** Diagnostikoa aztertu eta osatzea.
- 4.** Udaleko Erabilera Plana egitea.
- 5.** Plan Estrategikoaren iraupena erabaki eta proposamena lutzatzea.
- 6.** Euskara Aholku Batzordearen gaineko proposamena egitea.
- 7.** Euskara Zerbitzuen gaineko proposamena egitea.
- 8.** Euskara Biziberritzeko Planaren aurrekontuaren proposamena egitea.
- 9.** Komunikazio Planaren zirriborroa egitea.
- 10.** Plan Estrategikotik abiatuz, lehenengo urteko Kudeaketa Plana osatzea.

ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA

«Partiduen aurreko teoria erraza izaten da, hori betetzen saiatu behar da»

Abel Barriolak gaur jokatu behar du Atano III. ean, 4 t'erdiko finalerdietako ligaxkako bigarren partidua Olaizola II. arekin

JAIONE ASTIBIA

Abel Barriolak gaur gauean jokatu behar du lau t'erdiko finalerdietako ligaxkako bigarren partidua, Aimar Olaizolaren aurka, Donostiako Atano III. pilotalekuan. Iruñean masaje saioa hartu eta egunero mendi aldera egin ohi duen eskapadaxoaren tartean HITZATEKIN egoteko beta hartu du, edo zuzen esateko, atsedenetik kendu egin diogu.

Ostiralean, [gaur] finalerdietako 2. partidua duzu Aimarren aurka. Ikusmin ikaragarria eragin du. Partidu gogorraren itxura du.

Itxura hala dauka, bai. Bakoitzak geron jokoa egiten badugu, hala izanen da, gogorra. Biak oso joko onarekin ari gara, txapelketa bat da eta finalerdietan gaude. Kantxan zentratu beharra dugu derrigorrez eta, eman!

Prestaketa berezia egin duzu partidua honetarako?

Prestaketa berezia ez. Bost eguneko atsedena bakarra izan dugulako, fase honetako lehendabiziko partidutik. Sei egunen barranean jokatuko ditugu bi partidua. Beraz, denborarik ere ez dago prestaketa espezifikoa egiteko. Daudkanarekin noa. Hala ere ez dut aitzakiarik alde horretatik, ongi prestatuta nagoelako, jada aurretik egindako lanarengatik. Beharbada, akaso, Aimarren jokoa iri begira zer bait gehixeago egiteko aukera izanez, baina ez.

Nola jokatzeko du Olaizola?

Batez ere eraso ona, eta defentsa hobereana duen pilotaria da. Oso opari gutxi egiten du. Normalean bere partidua luzeak eta gogorrak izaten dira, baina aukera duenean, ongi bukatzen dakiena. Markagailuek askotan alde handiak erakusten dituzten arren, erraz irabazi den itxura emanez, tantoak luzeak eta gogorrak izaten dira bere partidutan.

Eta nola jokatu duzu?

Partiduen aurreko teoria erraza izaten da, baina saiatuko naiz betetzen: sakeaz baliatzen saiatuko naiz eta ongi errestatzen ere bai. Eta gero peloteo-



JAIONE ASTIBIA

an, pilotari abiadura emanez, tantoa indarrez egitea da asmoa, berari beti urrutiti jokatu-raziz.

'Xala'-ren aurkako aurreko partidua ikusita sakeak iraul dezake jokoa?

Sakea nere armetako bat da eta horretaz baliatzen saiatuko naiz dudarik gabe. Hori eta gainerako guztia eginez, irabaztea baliteke, eta hala ere galtzea ere bai. Kasu horretan aurkariaren meritua litzake. Lana ongi egin eta partidu ona egiten bada, ni behintzat gustura izaten naiz, baina irabazten badut gehiago, noski.

Asteartean egin zenuten pilota aukeraketa. Gustura?

Bai. Biek nahi genuena aurkitu genuen: berak pilota geldo-agoak aukeratu zituen eta nik azkarxeagoak; pisuan ez dute, ordea, apenas alderik.

Ligaska honetan parte hartzen ari zaretzetatik hiru txapel- peldun izateak, zailtasuna areagotzen du?

Txapelketa oso gogorra izaten da hasiera hasieratik eta teoriarik lau hoberean iristen dira honera. Puntu honetan kasu hori eman bada, maila ona dagoen seinale da ere. Partidu bati zailtasuna aurkariak ematen dio, txapel- peldun izaten denari, balio gehiago ematen dio.

'Xala'-ri 22-5 irabazi egin zenuen, hau 2.a eta beste bat falta zaizu. Hau ere irabaztea komeni da.

Bai, zalantzarik gabe. Hau irabazten duena finalera doa, hanka t'erdia finalean izanen ditu gutxienez, aldi berean hainbat gertakizun ematen diren bitartean. Aurrenekoa alde handiarekin irabazita izanik... eginahalak egin behar! **Zuk jokatzeko duzun partiduetara herriko zaletu asko joaten dira eta nabaritzen da handia daudela. Kantxatik oharitzen da horretaz?**

Nahitanahiez konturatzen zara. Batez ere beroketaz egitera ateratzen zarenean. Baina partidua hasten denean, zentratuta egoten zara eta pilotariaren arteko jokora erne zaude, gainerakoaz deskonektatu egiten da. Artekariera ere ez dut entzuten. Bakoitza berean egoten da.

Oraingoan herrikoak eta auzo herrikoak ere joanen dira?

Bai, partidu honek oso giro ona eta ikusmin berezia piztu duela nabari da, bai. Leitzako kirola asko maite duen herria da eta pilota bereziki; eta Goizuetan ere bai, argi dago. Edozein aldetatik doala ere, jendeak partidu polit bat ikusteko aukera izatea nahi nuke.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Astibiaren askatasuna eskatuko dute gaur

Ostegunean Soto del Real espetxean sartu eta dagoeneko Navalcarnerora urrundu

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:00etan, Etxerat-ek deituta giza katea eginen dute Leitzako plazatik hasita, herrian barrena, *Euskal presoak etxera! Igor askatu!* lelopean.

Deialdia hilabeteko azken ostiraletan egin ohi diren dinamikaren baitakoa bada ere, gaurkoa «herrikoentzat are bereziago izanen da, herriko seme baten askatasuna aldarrikatuko delako», argitu zuten. «Besterik gabe, etxetik gaureraz izanen da, herriko seme baten askatasuna aldarrikatuko delako», argitu zuten. «Besterik gabe, etxetik gaureraz izanen da, herriko seme baten askatasuna aldarrikatuko delako», argitu zuten. «Besterik gabe, etxetik gaureraz izanen da, herriko seme baten askatasuna aldarrikatuko delako», argitu zuten. «Besterik gabe, etxetik gaureraz izanen da, herriko seme baten askatasuna aldarrikatuko delako», argitu zuten.

dute, eta hantxe daukate, biharkoarekin [gaurkoz] dagoeneko aste bete eta egun batez, kartzelan», adierazi zuten.

Igor Astibia azaroaren 16ko goizaldean atxilotu zuten eta 18an espetxera eramanez zuten Garzonen aginduz, Soto del Realera zehazki. Jakin izan ahal denez, han ingre-soetan eduki zuten, astearte- an 2. modulura destinatatu zuten arte. Baina, atzo azken orduan jakin izan ahal zenez, Navalcarnerora urrundu zuten atzo, Astibia berak bere neska lagunari telefonoz egindako deian jakitera eman zio- nez. Bi ordu gehiagoko bidea.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Mus azkarreko saioa gaur Torrean elkartean

Izen-ematea momentuan bertan egin behar da eta bakoitzak 6na euro ordainduko du

J. ASTIBIA

Gaur ostirala, mus azkarreko saioa eginen dute Torrean tabernan, 23:00etatik aurrera.

Aldian aldian egiten duten txapelketa azkarra denez, bertan parte hartu nahi dutenek dagoeneko badakite, izena saioa hasi baino lehen eman behar dutela, noski bikoteka, eta kide bakoitzak 6na euro ordainduz.

Lehen partidako bikote- aurkariak zozketaz aterako omen dituzte, noski. Horki aurrera, galtzaile suertatzen direnak kanporatuz joanen di-

MUS AZKARRA ▶

SARIAK

- 1. saria.** Axuria eta 2 botila ardo.
- 2. saria.** 2 txuleta eta 2 botila ardo.
- 3. saria.** Baserriko oilaskoa eta 2 botila ardo.
- 4. saria.** 4 botila ardo.

relarik eta berriz ere zozketaz suertatuko zaien muslari- en aurka ariz. Sariak azken hiru partiduetako lau bikoteek jasoko dituzte.

iragarki laburrak ▶

Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34

Gorriti. Eraikuntza berriko 240 m²-ko etxebizitza unifamiliarra salgai, 400 m²-ko lorategiarekin.

Leitza. Hiru logelako pisua salgai, sukaldajangela, bainugela eta bi balkoiekin.

Leitza. Maxurrene inguruan, 160 m²-ko etxebizitza duplexa salgai, 120 m²-ko lorategiarekin. Aukera ona!

Leitza. Gorritiz arnauz jasoan baserria eta 40.000 m²-ko lur eremua salgai.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 26a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Adura, Albitz, Alege, Aliza, Alzo, Amerleña, Anoeta, Balamán, Belantza, Berastegi, Ekain, Herrialde, Ibarra, Inza, Lantzi, Leizorri, Lizarte, Omeñaca, Orna, Tolosa, Villabona, Zuzaldi
besteirik: Leizaldekako Euskara Batordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurritza.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **14** hotzena **11**

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Sahararekin erlazionatutako filma dokumentala 19:30ean, Urepelen; ondoren, hitzaldia saharar batzuk eta Euskadi Gazteko Danirekin. 22:00etan filma.

Larraul. Kultur Astea: merienda 17:00etan Katillutxulo elkarte; bideo emanaldia 18:00etan liburutegian eta 21:00etan bertso afaria Katillutxulon.

Lizartza. Nerea Herrarte ipuin kontalaria; udaletxeko areto nagusian 17:30ean.

Leitza. Interneta, korreo elektronikoa, Outlook-a, Excel-a... erabiltzen ikasteko aukera.

Tolosa. Tientte astaldi taldean Inauterietan dantzan atera nahi duenak gaur 18:00etatik 20:00etara San Frantzisko parrokiako lokaletara (Soldadu 2) joan behar du.

Villabona. *Tiontorrez tiontor* diapositiba emanaldia. Satorran 20:00etan.

Orexa. Udaletxeko aretoan ariko da Nerea Herrarte ipuin kontalaria 18:30etik aurrera.

KIROLAK

GAUR

Areto futbol

▶ Tinta Billabona-Ordizia (Nesken Liga. 20:45, Olaederra kiroldegia).

▶ T. Lakuntza-Bilkoin Legorreta (Lurraldeko maila. 18:30, Olaederra kiroldegia).

Esku pilota

Elkarteen Arteko Txapelketa

▶ Aurrera Saiaz-Arrasateko (Nagusiak. 20:00, Ibarra).

▶ Aurrera Saiaz-Zazpi-Iturri 2 (Nagusiak. 20:00, Ibarra).

▶ Añorga-Zazpi-Iturri (Nagusiak. 18:30, Añorga).

▶ Txapagain-Zazpi-Iturri 1 (Jubenilak. 20:00, Beti Alai).

▶ Zazpi-Iturri 2-Añorga 3 (Kadeteak. 20:45, Amezketak).

▶ Zazpi-Iturri 1-Anaitasuna (Nagusiak. 20:00, Amezketak).

▶ Hernani-Zazpi-Iturri 2 (Kadeteak. 20:45, Hernani).

▶ Urnieta-Zazpi-Iturri (Kadeteak. 20:30, Urnieta).

▶ Añorga 1-Elordi-Herrigintza (Kadeteak. 18:30, Añorga).

▶ Urnieta-Elordi-Herrigintza (Kadeteak. 20:30, Urnieta).

▶ San Esteban 2 - San Esteban 1 (Jubenilak. 17:00, Lizartza).

▶ San Esteban-Zumaia (Nagusiak. 17:00, Lizartza).

▶ San Esteban-Añorga 1 (Nagusiak. 17:00, Lizartza).

Paleta

▶ Kuku-Ramuntxo (Nagusiak. 21:00, Alkartasuna).

Zesta-punta

Elkarteen Arteko Txapelketa

▶ Beotibar-Jai Alai (Kadeteak. 19:00, Santa Luzia).

▶ Beotibar 2-Zumaia 2 (Nagusiak. 19:00, Santa Luzia).

BIHAR

Areto futbol

▶ Hegoalde-Diamante Rioja (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).

Esku pilota

Elkarteen Arteko Txapelketa

▶ Aurrera Saiaz-Zarautz 1 (Jubenilak. 10:00, Ibarra).

▶ Aurrera Saiaz-Anaitasuna (Nagusiak. 10:00, Ibarra).

▶ Aurrera-Saiaz-Murumendi (Nagusiak. 10:00, Ibarra).

▶ Zazpi-Iturri 1-Illunpe (Kadeteak. 16:00, Amezketak).

▶ Zazpi-Iturri-Bergara (Nagusiak. 16:00, Amezketak).

▶ Lizardi Igeldo 1-Kuku (Jubenilak. 17:00, Igeldo).

▶ Kuku 1-Behar Zana 1 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Kuku 2-Erriope (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Aurrera-Saiatz 1-San Esteban 1 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Elordi-Herrigintza-San Esteban 2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).

▶ Mundarro-Elordi-Herrigintza (Jubenilak. 18:30, Astigarraga).

Futbol 7

▶ Ibarra G.A-Zibibo D.C. (1. Maila A. 18:00, Idiazabal).

▶ Lanbroa Dickens-Robers (1. Maila A. 19:00, Idiazabal).

Futbola

▶ Amaroz-Intxurre (Lurraldeko 2. Maila. 15:30, Elorri).

▶ Sanpedrotarra-Danena (Lurraldeko 2. Maila. 15:30, Trintxerpe).

▶ Amaroz-Ostadar (Kadeteen

2. Maila. 11:30, Elorri).

▶ Amara Berri-Tolosa B (Lurraldeko 1. Maila. 15:30, Martutene).

▶ Tolosa-Oiartzun (Gorengoan maila. 17:30, Berazubi).

▶ Zalla-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 18:30, Zalla).

ETZI

Areto futbol

▶ Piti Pascual-Laskorain (1. Maila B. 18:00, Basauri).

▶ Bilbao EHU-Ibarra (1. Maila A. 11:00, Bilbo).

Futbol 7

▶ Bar Shanti Kirolak-D. B. Egur (2. Maila A. 11:30, Urnieta).

Futbola

▶ Tolosa-Indartsu (Kadeteen Euskal Liga. 18:30, Berazubi).

Zesta punta

Elkarteen Arteko Txapelketa

▶ Don. Jai Alai 2-Beotibar 1 (Nagusiak. 11:00, Balda).

MOBILIZAZIOAK

Tolosa. Borroka Eguna azken abiloketei aurre egiteko: goizean ikastetxeetan geldialdiak eta kontzentrazioak; eta 20:00etan Trianguloan manifestazioa. Ezker abertzaleak ere deituta.

Tolosaldea. *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean, hileroko kontzentrazioak. Alegia, Ibarra eta Tolosan 19:30ean eta Aduna, Altxo,

ALDIZKARIA ▶



Aldizkaria. *Hi, gazte!* (Tolosa)

Zenbakia. 9.a.
Orrialdeak. 16.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Gazte Topagunea.
Beste gaiak. Gazte informazioa; kontaktuak; sexu informazioa; karpeten dekorazioa; kritika, agenda...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako Udaleko Gazteria Sailarentzat.
▶ Nafarroa etorbidea 6, behea.
▶ 943 65 50 04
▶ higazte!@euskalerrria.org

Amezketak, Anoeta, Asteasu, Ikaztegieta, Lizartza, Villabona eta Zizurkilen 20:00etan. Ohiko tokietan. Etxerat-ek antolatuta.

MUSIKA

Ikaztegieta. Villabonako Eresargi Abesbatza. Gimnasioan 20:00etan.
Tolosa. Marbaundi Gaua. Bonberenean 22:30ean.
Tolosa. Su ta Gar. Bihar 22:30ean Bonberenean.

ZINEMA

Tolosa. *Di que si* filma. Leidor zineman 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Egoitz Garmendia.

Aita, ama eta Aitzol anaiaren partetik zorionak.



URTE ASKOAN

Iruñe Altuna Mujika

(Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN

Nerea Zabala (Ibarra). Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik, batez ere Loreren partetik.



URTE ASKOAN

Josu Aginaga Mendigain. Hiru urte. Zorionak guraso, aitona-amoneta eta osaba-zeben partetik. Muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Ekaitz Otamendi. Gaur urtebete. Zorionak aita, ama, Aitzol eta familiaren partetik.

HITZA,

zorion agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!